

GIPUZKOAKO ADINEKOEN EGOITZAK

Adinekoen egoitzen sektorea, sektore feminizatua da; soldata bajukoa, lan baldintza txarrak dituen (lan gogorra, denbora urriko lanaldiak, bermerik gabeko lanaldia eta egutegia, askotan egutegirik gabe), eta hala nahi izan dutelako, gutxi profesionalizatutakoa eta gutxietsia.

Hau horrela izatearen arrazoiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gizarte Zerbitzuak kudeatzeko hartutako erabaki politikoan datza. Jakina, enpresa pribatuen laguntzaz, langileak esplotatzearen kontura, soldatak murriztuz eta lan baldintzak okertuz eta aldi berean, zerbitzua bera okertuz, izugarrizko negozioa sortu dute adinekoen zerbitzuen inguruan.

ELAn lanean jarraitzen dugu, behingoz, sektoreko prekaritatearekin bukatu eta langileen premiazko beharretara egokitzen den hitzarmena izateko. Horretarako, landu dugun asmo handiko plataforman langileotzat lehentasuna duten edukinak finkatu ditugu eta derrigorrez, sinatzen dugun hitzarmenak hauek **jaso beharko ditu**:

- Diputazioko langileen soldatekiko homologazioa.
- Subrogazioa, enpresa aldaketa edo kontsezio administratiboan.
- Hobekuntzak bajetan.
- Lanaldiaren murrizketa (20 minututako atsedeen aldia eta norberaren kontuetarako 3 egun)
- Igande eta jai egunetako plusak.
- Urteko egutegia izatea.

Negoiazioaren egoera

Azaroaren 12an, Gipuzkoako adinekoen egoitzetako negoziazio mahaia osatu zen. Aurretiaz, ADEGI eta ELAk batera egindako eskaera tarteko Eusko Jaurlaritzaren Lan Sailak, mahaia osatzeko sindikatu bakoitzaren datu ofizialak eman zituen: ELAk %52,89, LABek %30,57, CCOOek % 9,09 eta y UGTk % 7,43.

Nahiz eta hau horrela izan, patronalek, ADEGI eta LARES eta gainontzeko sindikatuek, LAB, CCO eta UGTek, Eusko Jaurlaritzak emandako ziurtagiria eta legeak diona aintzakotzat hartu ordez, azpizokoa erabili dute mahai negoziatzealea beste datu batzuekin osatzetzeko.

Azpizoko honen helburu bakarra, bigarren aldiz, **hitzarmen kaxkarra edota merkea egiten saiatzea da eta orain arte egoitzetan lortutako hobekuntzak deusezte**. Horretarako, gainontzeko sindikatuak patronalaren zerbitzura jarri dira. Gogoratu, orain lau urte, lehenengo hitzarmena sinatu zela eta honek, batetik, ordurarte makina bat egoitzetan lortutako hobekuntzei topea jarri edota deuseztea ekarri zuela eta bestetik, edukinetan kaxkarra izan zela, azpimarratzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak Subrogazioa ez jasotzearen erabaki politikoa harua zuela ordurako.

